

MARKINA-XEMEIN / Irakurleen txokoa, hasteko prest

Iazko dinamika berdina izango du, eta talde bi egongo dira aurten ere: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa.

EIDER MUGARTEGI

Urriaren 9an jarriko dute martxan aurtengo Irakurleen Txokoa. Aurrekoen dinamika berdina izango du, hilean liburu bat irakurri eta horretaz berba egingo dute parte-hartzaileek.

Irakurleen Txokoa era guztietako jendez osatutako lagun taldea da, eta liburuetatik hitz egin, iritziak trukatu eta literaturaz berba egiteko batzen dira. Aurten ere euskarazko eta gaztelaniazko taldeak egongo dira, eta biak hileko bigarren egunetan batuko dira. Gaztelaniako taldea 17:00etan elkartuko da, eta euskarazkoa 19:00etan.

Lehenengo egunetik liburuetatik berba egiten

Iazko ekimena ondo-ondo joan zen, eta amaieran, balorazio onak egin zituzten bertan parte hartu zutenek, adierazi du Igor Idoeta Herri Bibliotekako arduradunak. Hori dela eta, iazko eredu berdina jarraituko dute, baina, oraingoan, lehenengo egunetik hasiko dira liburuetatik berbetan. Izan ere, ekimenean parte hartu nahi dutenek ikasturteko lehenengo liburua jasoko dute izena ematera doazenean.

Saioekin hasteko, liburu berdina irakurriko dute bi taldeek: Agota Kristof idazlearen *El gran cuaderno*-ri kolpeko dio gaztelaniazko taldeak eta *Kuaderno handia*-ri euskarazkoak.

Beste alde batetik, aurten ere, literaturan aditua den Isa Castilloren laguntza edukiko dute taldea sustatzeko, eta genero desberdinak landuko dituzte taldearen arabera. Lehenengo liburuez gainera, ez dugu beste libururik zehaztuta. Guk proposamenak egiten ditugu, eta taldeak erabakitzen du zer irakurri nahi duen, azaldu du Idoetak.

Liburua irakurtzeaz gainera, liburuaren zein idazlearen gaineko dokumentazioa, kritikak eta zenbait elkarrizketa ere eskuratzen dituzte. Idazle batzuk ere gonbidatzen dituzte euren beharra azal dezaten.

Izena astelehenetik aurrera

Izena emateko epea zabalik egongo da astelehenean hasita. Horretarako herri bibliotekara joan behar da. Liburua eta materiala jaso behar dira eta, argitu du herri bibliotekako arduradunak.

Parte-hartzea doan da, eta herri bibliotekak lortzen ditu liburuak.